GORBEIALDEKO KUADRILLA
( *ARABA* )

CUADRILLA DE GORBEIALDEA
( *ÁLAVA* )

**PRESIDENTEAREN EBAZPENA**

Gorbeialdeko Kuadrillaren egoitzan, Murgian, 2022ko azaroaren 13an, **Agustin Otsoa Eribeko Landa** presidenteak, Kuadrillako gerente-letradua den Juan Mª Ezkurdia Salazar jauna bertan zela, honako ebazpen hau eman zuen:

**EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

Azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Egunean, Gorbeialdeko Kuadrillak berretsi nahi du indarkeria matxistarik gabeko jendartea eraikitzeko duen konpromisoa.

Garrantzitsua da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren jatorria testuinguruan kokatzea, indarkeria horren arrazoia ulertu ahal izateko. Indarkeria matxista gure jendartean emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasunaren ondorioz sortzen da. Indarkeria fisikoa, sexuala eta hilketa emakumeen aurkako indarkeriarik basatienaren adierazpena badira ere, eta gehienek errazago identifikatzen badute ere, eguneroko indarkeria matxista ugari daude, emakume izateagatik emakume guztiek aurre egiten dietenak eta identifikatzeko zailagoak direnak. Baina eguneroko indarkeria horiek dira indarkeria-egoera oldarkorrenak ematea ahalbidetzen dituztenak.

Indarkeria hori bizitzako esparru guztietan ematen da, eta, horregatik, egiturazko desberdintasunaz hitz egiten dugu, sistema bera emakume eta gizonentzako oinarri desorekatu baten gainean eraikitzen delako, eta, ondorioz, desberdintasun hori transmititu eta mantendu egiten du.

Esan daiteke desberdintasunaren existentzia bera indarkeria matxista dela berez, jada gainditua dagoela dirudien arren, enpleguari,

**RESOLUCIÓN DE PRESIDENCIA**

En la sede de la Cuadrilla de Gorbeialdea, sita en Murgia, a 25 de noviembre de 2022, el presidente **D. AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA**, con la asistencia del gerente-letrado de la Cuadrilla, D. Juan Mª Ezkurdia Salazar, adopto la resolución que sigue:

**DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA MACHISTA HACIA LAS MUJERES**

Con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional contra la Violencia Machista hacia las mujeres, queremos reafirmar el compromiso de la Cuadrilla de Gorbeialdea en la construcción de una sociedad libre de violencia machista.

Es importante contextualizar el origen de la violencia machista contra las mujeres para poder entender el motivo de su existencia. La violencia machista surge como consecuencia de la desigualdad existente entre mujeres y hombres en nuestra sociedad. Si bien la violencia física, sexual y el asesinato son la expresión de la violencia más brutal ejercida contra las mujeres y más fácil de identificar por la mayoría, existe una cantidad de violencias machistas cotidianas que enfrentan todas las mujeres, por el hecho de serlo, que resultan más difíciles de identificar. Pero estas violencias cotidianas, son el caldo de cultivo para que se den las situaciones de violencia más agresivas.

Esta violencia se da en todos los ámbitos de la vida, por eso hablamos de desigualdad estructural, porque el propio sistema se construye sobre una base desigual para mujeres y hombres y, en consecuencia, la transmite y la mantiene.

Se puede decir que la propia existencia de la desigualdad es violencia machista en sí misma, y aunque. parezca algo ya superado,

zainketen banaketari eta astialdiari, soldata-arrakalari, baliabide ekonomiko eta sozialei, parte-hartzeari, genero-aginduei (rolak eta estereotipoak) eta abarri buruzko datuek berdintasunetik oraindik urrun gaudela islatzen dute[1].

Ondorioz, 2003. urtetik, hilketa matxistak zenbatzen hasi ziren urtetik, Euskal Herrian, 2022. urtera arte 115 emakume eta 11 adingabe erail dituzte. Horietatik 15 emakume eta haur bat arabarrak ziren. Azken urte honetan, 2022an, 3 emakume erail dituzte. Erailketa guzti hauek gizonek eragin dituzte denak.

Gure landa-eremuan ere badago indarkeria matxista, eta, batzuetan, populazio txikiko udalerriak direnez, zailagoa da horri aurre egitea, jendartean izan dezakeen eragina eta estigmaren beldur. Alde horretatik, erakunde publikoetatik arreta bikoitza eskaini behar dugu, eta posible ditugun baliabide guztiak jarri behar ditugu eskura, kaltea prebenitzeko, detektatzeko, artatzeko eta minaren erreparazioa hobetzeko. Baina baita gizonekin egiteko dagoen lanean ere.

Emakumeak urrats garrantzitsuak ematen ari dira ahalduntze indibidual eta kolektiborako prozesuetan. Gainera, Mugimendu Feministak emakume asko bultzatzen ditu beren harreman eta lotura afektiboak birpentsatzera eta askeago sentitzen diren bizitza bat lortzera. Baina, desberdintasuna eta indarkeria matxista nekez desagertuko da gizonekin lan egiten ez bada, beraiek baitira indarkeria hori erabiltzen dutenak

Aurrekoa ikusita, idazki honen bidez, **ERABAKI DUT:**

**LEHENENGOA:** Aurkeztutako testuarekin bat etorriz, Emakumeenganako Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunerako ebazpena onartzea.

los datos sobre empleo, reparto de cuidados y tiempo libre, brecha salarial, recursos económicos y sociales, participación, mandatos de género (roles y estereotipos) etc. reflejan una situación todavía lejana a la igualdad[2].

En consecuencia, desde 2003, año en que se comenzaron a contabilizar los asesinatos machistas, en Euskal Herria, hasta el año 2022, han sido asesinadas 115 mujeres y 11 menores. De entre ellas 15 mujeres y un niño eran de Araba. Este último año 2022 han sido asesinadas 3 mujeres, todas ellas por hombres.

En nuestro ámbito rural también existe violencia machista y, a veces, al tratarse de municipios de poca población es más complicado enfrentarla por el estigma y miedo a la repercusión social que pueda tener. En este sentido, desde las instituciones públicas debemos prestar doble atención y poner a disposición todos aquellos recursos que estén a nuestro alcance para mejorar el trabajo de prevención, detección, atención y reparación del daño. Pero también en el trabajo que queda por realizar con los hombres.

Las mujeres van dando pasos importantes en el proceso de empoderamiento individual y colectivo. Además, el Movimiento Feminista empuja a muchas mujeres a repensar sus relaciones y vínculos afectivos y perseguir una vida dónde se sienten libres. Pero, difícilmente desaparecerá la desigualdad y la violencia machista si no se trabaja con ellos, ya que son quienes ejercen esa violencia.

A la vista de lo anterior, por la presente, **HE RESUELTO:**

**PRIMERO:** Aprobar la resolución de presidencia con motivo del Día Internacional Contra la Violencia Machista Hacia las Mujeres.

[1] Zifrak 2021, Emakumeak eta Gizonak Euskadin, Emakunde.
[2] Cifras 2021, Mujeres y Hombres en Euskadi, Emakunde.

**BIGARRENA:** Ebazpena jendaurrean, webgunean, iragarki-taulan eta Kuadrillaren bulegoetan ikusgai jartzea.

**HIRUGARRENA:** Horregatik guztiagatik, herritar guztiak animatzen ditugu Mugimendu Feminista eta emakumeen kolektiboak deitutako mobilizazio-deialdietan parte hartzera.

**LAUGARRENA:** Ebazpen hau Gorbeialdeko Kuadrillaren Batzarrean aurkeztea, egingo duen hurrengo bileran.

*Aurreko ebazpena osorik irakurrita, Gorbeialdeko Kuadrillako presidenteak onartu zuen, eta nik, gerente-letraduak, egiaztatzen dut.*

**O.I/ Vº Bº**

**PRESIDENTEA**

16260341P AGUSTIN OTSOA ERIBEKO (R: P0100389F) Fecha: 2022.11.25 08:17:34 +01'00'

**AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA**

**SEGUNDO:** Exponer la misma al público en la página web, en el tablón de anuncios y en las oficinas de la Cuadrilla.

**TERCERO:** Animar a toda la ciudadanía a que participe en las convocatorias de movilización que se realizarán desde el Movimiento Feminista y colectivos de mujeres.

**CUARTO:** Dar cuenta de la presente resolución a la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea en la primera reunión que celebre.

*Leída íntegramente la resolución que precede, es aprobada por el presidente de la Cuadrilla de Gorbeialdea, lo que yo, el gerente-letrado certifico.*

**GERENTE-LETRADUA**

JUAN MARIA EZKURDIA SALAZAR Fecha: 2022.11.25 08:19:34 +01'00'

**JUAN Mª EZKURDIA SALAZAR**